ALDE GUSTIJETAKO IZPARRAK

MADRID

Maura jaunaren arauz, Gil Robles eta Prieto jaunagaz izketaldi bat egin dau, latari arek egin dauzan zalatziak Aldun-Batafean erabagi dagijezantzat.

LA HABANA

Eftzañak idoro dabe Cuba latefijan, Machado jaunaren aufkako matxinadea. Iru gastek jafi eben subaga bat lendakarija igato biaf zan tokijan. Machado'ren aufka gofoto bixija daukoe.

LA CORUÑA

Sales'taf lekaidian etxe-aufian subaga batzuk jafi dabez ezkeftafak. Lastef sugefiko zorijan zirala, eftzañak ikusi eben. Lekaidetxiak egaz-egingo eban subaga aren taupadeagaz.

NUEVA YORK

France eta Suiza'ra bidaldugo dabez lafefi-Alkartubak, 132 milloi dollar. Ufe-gerokuak berakada andija egin dau. Gitxijenez 4.000 anei bera-jausi dira. Eta onelan ufitariletik 600 milloiren galkuntza ixan dabe.

MADRID

Sorolla margolari ospatsubaren Etxian margo ta antzezti-tokija egin dabe. Jaufleri geyenak an ixan ziran eta De los Ríos jaunak itz-egin eban margolari ixan zan aren goralbenak egiten. Valencia'ko endoriak be goraldu eban Sorolla ospatsuba.

BILBAO

Rioja'ko semiak, Bizkaya'n bixi diranak, jai andijak egin ebezan atzo. Coliseo Albia'n erestaldi andija euki eben, jaupa-ostian. Euzko-efijaganako maiasuna erakutsi eben izlari batzuk oturuntza-orduban. Vallejo jauna zan maipuru.

DONOSTIA

Araudi-alde zabalkunde andija dagije alderdi gustijak. Treku jaunaren ustez, beste efkijetan ezta egifen an egin dalako zabalkunderik.

Itxas-gixonen aftian eztabaida batzuk ixan dira Pasai-aldian eta auretariko batzuk auriz josita geratu dira.

Udaletxian ixan dan batzafean, ezkertafak alkafen aurkako izkanbilak euki dabez. Endore jaunak asafe urten ei-dau batzafetik, ziñegotzijak erakutsi daben lotsabakotasuna-bide.

SALAMANCA

Efki onetako jauflarijak galen edo multak lepaldu dautsoez txaunburu batzuri. Cantalpino, Fuentesrobles eta Salvatierra efijetako txaunburubak ixan dira eta batzuk befeun laufleko galena ordaindu dabe. Efkataren aufka itz-egin ei-dabe.

CADIZ

Zf onetan ezkeftafak zalapartaka ibili ei-dira. Endoriak jarein dau bere betebiafa. Orain beste bat aukeratu dabe. Pita jauna, esagilia ta ezkeftaf gofija.

BERLIN

Aldun-Batzafak ila onen 15'gn. batzafnaudijak egiteko erabakija aftu dabe. Prusia'ko lendakarija autetsiko dabe, ba. Hithler'tafak itxaropen andija daukoe garile dirala.

BISKRA

Lena Berustein deritxon 26 urteko emakume egaizkarija, orain egun batzuk dirala etxalduten zan jatetxetik urten zan, egazkiñak geratzeko daben zaldi-lasteketarako zelayan bertan ilda idoro dabe.

Egaizkari efukafija, edendu egin zan, iru men-opiltxu txanpan-uretara jauftifa edendu be, eta gero il egin biaf.

Lena Bernstein Leipzig deritxon urijan jayo zan, eta 1926'gafenetik egaizkin-zuzenfari ixan zan.

Emakumen arteko egaizkin - lasteketa batzubetan garale urtena zan, baña geruago Maryse Bestie eritxon beste emakume batek gofu eban; eta ordutik aufera, Maryse'k kendu eutsan txapela atzera beragandiken alegindu ixan da.

Alegin egite oneitan, bere ogasun gustijak sautu euzan, eta azken aldijon jolaseta edo circo batera juateko ixan da.

Egaizkintzeak kirijuak gexotuta zoratu egin dala uste da, eta ogasunik ezak burua edendutera eruan ebala.

MARTIKORENA

Beklyeta'ko gaixoen zendagillea
Garibay, 13 bis, 2.º DONOSTIA.

Aranburu'tar R.
AZAL ETA TXIZ-BIDIAK
Fueros, 5, 3.º DONOSTIA

TXXE TA LURR SALDU-EROSTIA
Etxien-gain diru arrtu-emotia
INTXAURRAGA'tarr P.
Bilbao-Bailen, 3-2'g. 11.685 urrutifik

SAN ANTONIO URKIOLAKUA



Euzkal-biotz gayenetan da Urkiola'ko Andoni deunaganako maitasuna: ofegaitik egiazkoak dira Euzkalefian safitan entzuten doguzan itzok:

"Aita San Antonio
Urkiolakoa
Askoren biotzeko
Santu debotoa."

Urkiola-mendian dan Deun onen edestia, maitasun edestia da euzkaldunentzat beintzat. ¡Zenbat ilundu, argituak izan dira bere oñetan; zenbat biotz-lafi poztuak; zenbat negar-malko legortuak; zenbat samintasun eztituak...!

Gure afantzaleak euzkal-itxaso bufukatsuetan izan diranean. Arako, itxaso indartsuaren erpetan euren bizitzak izan dituezanian, beti bialdu dituez otoitzik sutsuenak eta agufik samufenak Urkiola - mendiko Deun oneganantz.

Euzkal-ibaf ta zelayetan diran lugiñak, Andoni'gan bilatzen dabe lagunik onena ezpear gustietan safi-ta-safi... euzkal-semien amaren biotza saminduak izaten dira etxetik urun izaten dabelako seme maitia...: gexorik dalako...: España aldian gudaketa negargafian dalako...: Ta, samintasun itxaso onetan, an basefi aldian aurkitu ezin daben poza, Andoni'ren oñetan egiñeko bederatzi-ufunean bakaf - bakafik aurkitzen dau.

Utsunen bat aurkitzen daben gustiak: gexuak, efenak, itxuak... ¡zenbat bider gogoratu ete-dituez euren bakar-ordueta ako, noiz-edo-noiz Urkiola'ko eleizan abestuten entzun dituezan itzak...:

"Mirariak ugari
badozuz bilatzen,
Urkiola etofi
Santuoi eskatzen."

Itz ba'legite Mañaria aldean diran arkaitzak eta Txakurzulo inguruko bideak, esango leukie zenbat biotz ikusi daben mindurik Urkiola'rantza igoten: gurasoak semeak kaitik otoitz egiten, anayak anayakaitik, norberen efialdeagaitik...

Itxuak, efenak, zer-edo-zer bear daben gustiak itxaropenez beterik biotzak dituezala igoten dira urtero... eta, urtero maitasunez erantzuten deutso Andoni deunak bere maitalien itxaropenari, Urkiola'ko elizan abestuten dan legez:

"Antonio'ren delra
ilak dira bizten:
itxasoak baketu
lotuak askatzen...
Gaxoak osasuna
itxuak argia
efenak ibiltea
beaf dan gustia."

Aurten, biar, astelenez, dogu jai orl; Urkiola'n batuko dira Euzkadi gustiko Andoni'ren maitaleak; urtero legez ikusiko doguz mendiak-bera ta aldatzak-gora eskari sutsuak egiten datorzan aldrak; eta, danak bialduko ditu Andoni deunak mendi ofeitatik-zear pozturik bere oñetan.

Mañaria, Abadiño ta Afatia alderantz diran arkaitz eta mendi-artean, amaikak pozez abestuko deutso Andoni deunari, aoz ez-bada biotzez, ako gure antxin-asabak Urkiola'tik iges-egitean eskefez beterik abestuten eutsiena:

"Aguf San Antonio
aita Padukua
egin dogu nai gendun
ikuste santua:
Artzera goyaz bide
etxerantzakua
bafiro etorteko
dogula gogua.
Aguf, aguf Andoni deunak
aguf, aguf Santu Altsuak."

IRUARETXETA.

Algorta'ko Euzkel-Ikastoleak

Igaziko barikuban. Algorta'ko Euzkel-Ikastoletako ikastarua amafu zan.

Ainbat ikasle zintzok jafafu dautse ufte gustijan geure abefiko ele gozo oneri bere aztafenak atera gurian.

Onura galanta atera dabela zetan esanik bez.

Getxo efija sakabanatuta dagon-afen, alde gustijetatik etofi dira Getxo'ko udaletxe safera, euzkera ikasi gura daben gixonezko ta emakumezko zintzuak. Ta nok esango leuke, ¡ufiñen bixi diranak, zintzoenak ixan dira!

Oneik, ezetariko atxaki barik, euri nai atefi, ekatxa nai edufa ixan, polilo ekin dautse. Oneik bai-dirala abefi-seme zintzuak, ba, amari dautsen zofa ofdaintzen edefto aleginduten dira.

Beste askok, berton bixi-afen atxakija-atxaki ganian ipiñi, ta eztabe ordutxu bat egunian euren elia ikasteko euki gura-ixan. Batzokijan, edo beste leku baten bafiketan egoteko astija ixan dabe, baña euzkera ikasteko ez.

Gero abefija mafe dabela esango dabe. Gixona bere egitadatatik ezaun. Onelako gauza efaz bateri neke deritxonak, zef egingo ete leuke, abefija gaitik gauza aundijago bat eskatu ezkeron?

Ama Euzkadi alde gustijetatik ikusten dogu geure elian itz-egiten. Semiok ostera, jaramonik bez. Au aundija, ama ta semiak alkaf uleftu eziñik. Zelako semia da amari uleftuten aleginduten eztana? Ona ez.

Bua, ba, neure zorijon bijotzetikua ikasle zintzuontzako. Bafa neure dei-anaikofa auften joan eztiran euzkotaf orontzako bere. Geure Jaunak damututa dagozanak gura dauz. Geure ama Euzkadi'k be bardin. Egin, ba, azterketa on bat, ia ondo ala txarto dagixuben euzkera ikasten aleginduten etzarienok. Emetik eta datofen ikastarora badozube astirik, eta datofen ufilan etofi danok, an egongo dira irakasliak, maitasun gustijagaz zeuroi irakasteko ta.

Lenengo ikastaruan, Albitzu'taf Emili abeftzale ona irakasle zala, 25 ikaslak jafafu dabe.

Ara euren ixenak:

Ponposo'taf Eloise, Agife'taf Eskarne, Gortazar'taf Miren Koldobike, Igual'taf Miren Karmele, Eskibil'ta Edelmire, Zunzunegi'taf Josune, Epaltza'taf Garbiñe, Gofoño'taf Miren, Ansoleaga'taf Edurne, Bilbao'taf Pilare, Afieta'taf Elixabete, Afieta eta Lona'taf Miren, Zunzunegi'taf Miren, Atxitia'taf Joseba Mirena, Safia'taf Adolba, Maguregi'taf Maren, Etxabe'taf Imanol, Uriarte'taf Emili, Safia'taf Luken, Afieta eta Fernandez'taf Miren, Uriarte'taf Miren, Gaubeka'taf Elixabete, Zabala'taf Karmele, Orbe'taf Karmele eta Gortazar'taf Luke.

Bigafen ikastaruan, Artza'taf Andoni, irakaslia, ta oneik ikasliak ixan dira:

Zabala'taf Pantzeska jaupari jauna, Muñoz'taf Danele, Motagoitikoa'taf Markelin, Ansoleaga'taf Joseba Mirena, Solozabal'taf Pantzeska, Zabala'taf Aureli, Atxufa'taf Segunda, Arondo'taf Joseba, Odriozola'taf Miren Koldobika, Ibarzabal'taf Elixabete, Lantada'taf Peli, Lafinaga'taf Agurtzane, Saitua'taf Sorne eta Lafinaga'taf Imanol.

Aguf, ba, danori, ta ekin bide onetatik Euzkadi gaizkatu-afte.

TOFKATIKO.

ERMUA

IGAZI ZAN.—Igazi zan geure batzokijaren zabalkunde eguna ere. Pozik geratu gara egun aretan ikusi genduban notintzarekin. Egundo eztot ikusi txoko onetan, ikufin-mordo edefagorik. Ementxe jakin adirazoko dautzubet nunguak ziran.

Zamudio, Abadiano, Eibaf, Zaldibar, Derio, Afasate, Aramayona, Elgeta, Durango eta Otxandiano'ko gixon eta emakumien ikufiñak. Geure efiko iru ikufiñak ere antxe ziran. Batzokikua, Emakumiena ta Mendigoxale "Auspo-Sagu" ena. ¡Zelako txinpartak atera zituzten geure izlari trebiak!

Aufe-egunian Ozerin jaunak egin zigun. Igandian Leizaola'taf Josu Mirena'k, Trabudua'taf Polixene'k, Lazkano'taf Miren, Irisafi'taf Joseba Koldobika eta Arantzadi'taf Estepan'ek. Gero "Auspo-Sagu,,'ko bertzolari jatof bik eta euzko-gudarijak diran Txindufi, Uriguen eta Itufiaga'k jaurti ebezan bertzo edefak.

Aufpegi ezagun asko ikusi nituban egun ofetan. An ixan zan Ufiolabeitia'taf Amantzi jauna, bere alaba lirañagaz.

Bizkai-Buru-Batzafako txindi - zaña ta abaf. Euzkel-idazle moltsua be an ebilan. "Atxolin", "Elgoibarkua", "Azkorgain", "Ogoñope", "Abeletxe", "Abefi" ta beste amaikatxu.

Gustijai geure eskafak egiten dautsoeguz ta jakingo degu zelan eskafak agertu.

EUP!.—Ila onen 19'gn. gustijok Gerena'ra. Mendigoxaliak eta "Auspo-Sagu,,'kuak, gustijak mendi ganera igon gadixan.

AZPEITIA'RA.—Gaur Ermua'ko abeftzaliak Azpeitia'ra juan gadixan, batek be ezdedila atxakirik afera. Azpeitia'n erakutsi biaf degu abeftzaletasuna.

ERMU-ZALE.

IBAŕETA
Enparanko gixon jantziak
Ametzaga'tar Urtado kalea 20 g.

JOSKINTZA SASTRERIA
TRINCHERAS y GABARDINAS
Urtado de Amézaga. 20

JOYERIA - PLATERIA
RELOJERIA
ARRIETA JOYERO
Bitxitegia - Zillartegia
GABEUKAZTEGIA
CONSTRUCCION Y REFORMA DE ALHAJAS
BITXIAK EGIN ETA BERRITZEN DITU
LEGAZPI, 10 - DONOSTIA - URRUTIZKIÑA, 13777

ERRIJETATIK

ZEANURI

AGUŕ.—Aspaldijan ixil zamaf ixan garanezkero, "Lauaxeta", "Basefitaf bat" eta "Atzelari" idazle zintzuak eta efi onetako irakufle gustijak aguftuteko biafixenian aufkitzen naz, bafiro be al dogun gustijan efi onetako izpaftxubak agertuten yafaftuteko.

BEDERATZIUŕENA.—Aste gustijan goxeko bosteterdijetako yaupan ixaten dan Andoni Deunaren bederatziufenera ozte aundija elduten da. ¡Bai, ba! asko bidebatez esniakaz etoften dira-ta.

¡DANOK URKIOLARA!. —Iragafifa daguan legez, uste dot, Zeanuri'ko etxe bat ez dala geldituko euren ixena Andoni Deunaren oñetara eruan barik. Auften iñoz baño geyago Afatia eta Abadiano argitalduko jayetara elduteko.

ERMITATXOA.—Efotaetxe jaunaren baratzean egindako Andoni deunaren ermitatxo kufunen onespena datofen igandian izango da: Ofetarako jai aundiak gertau dira: Goxian amafetan jaupa "Goiko-etxearena" Ixidof Deunaren elexan; onen ondoren ermitatxoaren onespena jaupeagaz eta aberiaren onespenagaz. Afatsaldian Afatia gustiko txistulari eta albokarijakaz jai polit bat.

¡Basefitafak! Igandian Zeanuri'ko zelaira zuzendu zafeze zer ikusi egongo da-ta. ¡Pelota txapelketia be bai!

PELOTA TOKIA.—Udea uferatuaz doyan legez ikasle mutil gastiak be agertuaz doyaz. ¡Aaa! gastiak bakafik ez, Mendia ta Intxaufaga jaunak, be bai, bada eurak dira pelota-tokijari berotasuna emoten dautsienak. Oleaga anayari be itxaroten gagoz.

ZEKOŕAK.—Igaro dan igandian ainbat ixan ziran Ufaburu'ren zelairatu zirenak.

NASKALDIJA.—Bilbao'tik Arana'taf Todor eta Pujuna'taf Josu. Maistra-ikaslak be lasteř dira. Plaza'ko ikastolara be agertu yaku bafi bat.

AŕEGI'TAŕ BAT.

SORALUZE'TIK

ERIOTZA.—Geure lagun ona dan Itufbe'taf Telespor'ek bere bigafen semetxoa galtzeko zoritxafa izan dau. Eguazten afatsaldian il zan. Zoritxafik asko badau aendi ofek; bost semetatik batekin geldi-tu da.

—Baita Igarzabal'taf Julen'ek ere "Artzabala" amasaspi urteko alabea il da ikusteko aldi estua izan dau. Jente askok lagunduta eguastenia obiraldu zan.

Atsekabian laguntzen diogu sendi biyeri.

AZPEITIA'RA.—Egualdiak bate laguntzen badau abeftzale mordo edefa juango igandian Azpeitia'ra mendiz. Zaletasun gogofa dago. Afatsaldetik be ez dira gutxi bertaratuko. Eta iñor juatekotan juan bear dala deritzagu.

"EGUN BATEKO IRABAZIA".—Il onen ogeigafenerako itxi beaf dogu arpide ori. Ia, ba, iñor baldin bada ondiño badaki bizkortu bear dabena. Ziñistu ezindako bezelakoa esate baterako; larogeta amar inguru gaur atek eskua luzatu dabenak.

EŕIKO GAXO-BAZKUNA.—Gora-berak; Ofilan sartutako dirua 457,80 laufleko. Ordaindua 391'25 irabazia 66'55.

Il azkenian kutxan txindia 6.420,36 laufleko. 296 bakide.

DRISIDRAS.

FORUA

DABILTZAZANAK.—Logroño'tik euren ikastaldijak igaro ondoren etofi dira; Ufutia'taf Karla eta Afgatxa'taf Joseba ikasle mutilak Gazteiz'en azteřketak egin ondoren. Undabeitia'taf Anikete irakasle geya. Gustijak euren azteřketetan ondo uften dabe. Geure zorijonik sutsubenak eta uda alaitsu bat igarotia opa dautzugue.

ELIZKIXUNAK.—Igaziřako barikuban asi-zan Josu Biotza'ren bederatziufena, igandian amaitzeko. Igandian egingo da elizkixun nagusija, ta, oso edefa ixango dala uste dot, bertoko txaunburubi dan Zabala'taf Efapel asi ta dago zeozer gertuten beintzat, eta berau ezta makala onetariko gauzetan.

MALUKIJAK.—Auften lugiñak asafez dabiz; ufte gustija malukijak jofatu ta abaf ibili ondoren, orain saneufi merkietan saldu beaf diñuela-ta. Baña lugiñak asafe diranian beste batzuk ixango dira pozik, auften beintzat malukijak ugarijago jango dituez-eta.

AKORDA'RA.—Poz aundija dago emen G fnika-inguruetako efijetan igandian Akor da'ra juateko. Igandian "Txara-txara,,'k euzko-azija ugari ereingo dabela uste dogu efi ofetan, beintzat eztozak makalak "Txara-txara,,'kuak onetan. Ia, ba, beraz irakufle igandian Akorda'ra. Gefnika'ko eletari zintzuai entzutera, ta bafa Muxika'ko txindof-kumia be an ixango da, ta, egijak ugari esango jozak.

IBAI-GANE.

MAÑARI

ELIZKIXUNAK. — Igandian, Otoitz-Bialguntza'kuak Josu'ren Bijotz gozuaren aintzaz, ufteko jairik andijena ospatu geban. Goxian, Jaunaftze asko; ta afatsaldian be. gure Jauna agirijan zala elizkixun edefa ibildeun eta gusti. Azkenez, txaunburu jaunak, Bialguntzatzaz berbaldi edefa egin euskun.

Aintza ta omena Bijotz deun-deunari!

JUAN-ETOŕIJAK!—Lexona'tik etofifa, gure aftian aurkitzen da Baraya'taf Miren andera gastia.

—Santurtze'tik etofi ziran Baftzena'taf Agapita ta Kapañaga'taf Bitof bere emazte ta umetxuakaz.

—Emen egun batzuk igarota, lengo astian juan zan Galdakano'ra, Efekalde'taf Josune; baña Galdakano'ra juan zan, Zubizafeta'taf Augustine anderea be.

BEDERATZI-UŕENA.—Andoni deuna'ren bederatziufena, emeko Kurutze-Deuna elixatxuban, larunbata iluntzijan asi zan; eta notin asko efduten da. "Deun, emolia, askoren gogoko."

IGALIJA. — Aufengo urtia, igali-ufte kaskafa ixango dalakuan gagoz. Kerixa-zugatzak beintzat, igazaña garaun eztabe. (Emen bafiz, auxe tamalgafijena). Ta maluki, makatz, sagaf eta enparau igalijetan b ugerifasunik eztogu ixango. ¡Tamala!

MARKIÑA'RA.—Igandian, Markiña'ko euzko-jaire, emeko mutil abeftzale batzuk be juan ziran. Eta, an egin zan guztijari edef-edef eretxifa pozez beterik etxeratu ziran; batez be, Belakoftu'taf Juli Aldebafena'ko mutila. ¡Edefto gastiak! Olako jai edefetan Abefija ondo mafatzen ikasita gero, zebek be zef edo zef egin daixuben be.

EUZKO-ARAUDIJAREN ALDEZ.—Emen be, Euzko-Araudija edo Estatutoaren aldezko ingijak zabaltzen asi dira. Ta uste da, geyenak, euren autafki edo "botoa" Araudi onen aldez emongo dabiela.

Ondo ixango litzake baña, jentia apuf bat geyago berotutia; entzun dogunez ba, baten batzuk aufka be ba-dagoz ta.

UKKIOLA'RA. — Andoni deunez, ta aufegunian (aurten igandez dalako) notintza andijak etofiko dirala uste da. Egun ofetan amaikatxu modutako jentia ikusiko dogu efi ontan, gorantza ta berantza doiazala.

Paraon'en ondorenguak be, beti lez, zintzo etofiko dira; ainbeste notiñen artian-negosijo" edefen bat egin al-badabe edo. Oneik begijak, belafijak eta batez-be eskuak... bizkof erabiliko dabez. Daguan lekutik gauzea ataraten eztira mutil txafak be ta. Gustijentzat perija txafik, ezta ixango...

MAÑARIKO.

URDULIZ

JEL-ZABALKUNDIA. — Efi au be, apurka apurka, baña aufera dua Jel-ikufitan dagozan gauza edefak euren biztanlien -artian zabaltzen, ba, lenagotik daguan Jel--Uri-Batzafa'n badoaz aufera aldeftikidiak. Orain diñar dube emakumiak be euren batza atonduten Eunda ogei bazkide dira.

ITZALDIA.—Igandian emakumiai itzaldiatxubat egin eutsien Uribe'taf Jayonek; lasteř beste bat egifeko, atonduten diñardube. Onek emakumiek asi ezkero gero...

ARMINTZA'RA. — Datofen igandian Armintza'ra juateko euron makilak gertauten diñardube emengo gasteak eta zafak an egingo diran euzko-jai ta itzaldi egun edefa igaroko dabe.

NASKALDIJA. — Gure endore jauna Cadiz'en aurkitzen da itxasontzi-buru ta burugeyak arteraten-examiñaten itxasotik etxeratuten egurtu dogu geure adizkide ta abeftzale ona dan Artolozaga'taf Bingen, baña Andalucia'ko efi batetik etofifa agurtu dogu Mentxaka'taf Toma osagilia.

TXIBERI.

AZKOITIA

EUP¡—Abeftzaleak, igandian Azpeitia'ra juan biaf dogu, gure anai zintzoai biaf-dan laguntasuna emanaz, Jai-abefkoi aundi ori ospatutzen, alaxe nabaitzen det.

ARAUDIAREN AURKA.—Gure udaleko. "integro-jaimista-atzefi-zaliak", astartian batzartuta, erabakia alaxen aftu dute, naizta abeftzaliak gogof egin bere aldez, ofentzat txafa-da nozki, Baña endoriak diño bestiak ekartzen badute, guk ere izango degula, Jakiña zalantza bat kentzen diguzu, biarko naizta atzefi maketo-zaliak gura ez, agintza aundienak izan dituzute, ofek ematen digu min.

"UŕATEGI,,'N.—Egin ziran jayak utzi giñuzen pozez beterik abeftzale gustiok, bere befi biali nion "Lauazetari", baña etzun argitaldu eta orainguakin ez dakit zer egingo digun berak,

Elgoibaf'ko, Emakume-Abeftzale, Mendigoxale anai afebakaz baturik, ofela ba' litz poztuko zaigu "Abefi", bai zerbait erantzun ere.

"MADARIAGA,,'KO BASATXONORAKO.—Apaiz izendatu dute gure lagun ona dan Areitio'taf Jon Jaupari agurgafia, asko poztutzen gera ta aftu nere eta lagunen zorion maitekofa.

EGI ALDE.

DURANGO

URIBAŕI'KO AMA'RI, BEDERATZIUŕENA.—Bai bederatziufena, emengo ta Yufeta'ko abade jaunai adimen-argifasuna eskatzeko.

Aspaldijon ezta besterik entzuten, ba, Durango'n, itzaldijak, otoi, abesti, iragafki eta kistaf-ikastija bera be, efderaz egiten dala baño (1).

Jaupari oneik ¿nora jaufti ete-dabez eleiz--buru nausijen agindubak? (2).

¿Elexako agindari nausijak agindüta ez ete-dago, ba, uskuftz-egija, zerurako bidia bakotxari bere izkuntzan erakusteko? Ori egija ixanda ¿zer dala-ta euzkeldunoi geure euzkera edefian erakutsi ez, ba? ¿Ala zuben egin biafa politikea eta iñor ikusi eziña dirala uste dozube?

¡Ez jaunak, ez! Zuben egin biafa ezta ori, iñof gofoto ixatia ezta zuben egin biafa. Ori baño gafantzi geyagoko ardurea da zubei abade jaunoi Goikua'k zeubekanatu eban ardurea. Uskuftzaren, erlejiñuaren egijak mafasunez irakatsi eta arimak zerurako irabaztia da, ba, zuben egin biafik arduratsubena, eta ez politika lofin baten saftuta gofotua ta bijotz-efkintasuna sendijetara eruatia.

Ez afen, ba, guri txaftorik irakatsi, bestelan Goikua'ren zigofa bizkafetan dozube, ta bekuaren abegi txafa be bai ufian.

Geure gauzen, Goikua'k geuretzako emon euskuzan euzkera ta euzkel-ofura garbi kutsigiaren aufka dagixuben bifaftian, ezkara, ba, gu, ixilduko, geure-geuriak diran gauza oneik aldeztuten doguzen bifaftian, Goikua'ren naya zuzen be zuzen betetan dogula ziuf-ziufian gagoz-eta.

Uskuftzaren bidetik urten barik zuazen bifaftian, txalotu egingo zafuguez. ¡Baña andik urtenda azi txafa)zabaltzen asten bazarie...

Uribafi'ko Ama Neskutza, otoi, ¡otoi bidetik urtenda gaiztokira bidiak-ziaf duazen ofeitzaz!

BATZOKI-ZABALKUNDE EGUNA. Zubalkunde au dala-ta antzezlarijak euren ingitxubak ikasten zoli dabiz, "Iru gudari" deitzen jakon entzezkixuna ikasten.

Antzezkixun au Sota-Aburtu'taf Imanol'ek efderaz idatzija da, eta "Lauaxeta" idaz le azkafak euzkeralduba.

"Anton Berakatz" edo izkiña Motriko bafagafijak ikasten be 60 emakume baño geyago dabiz. Onetzaz ganeko egunen baten zezer geyago esango dogu.

E.-A.-B—Emakume onein asmua, benetako asmu edefa da, lan bako Euzko-langilai lagunduteko aftu daben asmua da-ta. Egun gitxi bafu etxerik-etxe juango dira, eta bakotxak emon al daben soroskitxuba imindeko, ingitxubak eruango dabez.

580 Euzko-langile bazkide dira.

EZKONTZA.—"Gogofa" eta "Amagoya" ezkondu ziran, ta igazi dan ofila'n 25' kafenan Urkiola'ko Andoni deunaren txadonan ezkondu be.

Eztegura lagun asko juan ei-ziran. Esan ixan ba'leust, neu be juango nitzan... baña ¡nok esan? Eztegurako deirik ixan gafen baña neure zorijon agufxuba emon barik ezin itxi neikijo. Urte askotarako zorijona ixango al dozube, ba, eta seme-alabatxuren bat donokijak bidaltzen ba-dautzube, Euzkadi'ren tzat azteko Goikua'ren laguntza ixan dagixubela.

Entzun dodanez, Zaragoza aldetik ixan biaf dabe. Pilarica'ra juaten ba-zarie, Euzkadi'ren gaizkatzea eskatu, España'rena beste batzuk eskatuko dautse-ta.

Gero Barcelona'rako asmua ei-dozube, ta gero Valencia'rako. Eta gero...?

¡Euzkadi'ra, mutilak, Euzkadi'ra!, ementxe baño leku obarik ludi gustija aratutz be eztoube idoroko-ta!

SORKUNDE.

(1) ¿Olata-diruba be efderaz eskatzen juek? Olakorik egingo ba'leukek egin, "Cordoba,,'rantz bidaldu, bila dabixana andixik lasteř aftuko juek-eta.

(2) Atostera jaufiko juezan. ¡A Sorkunde, Sofkunde! ¿Sermoyokin ofeik "konbertietia" uste dok? Durangaf karlataf pufukatubok "konbertietan" ezeik astirik galdu, "por imposibletzat" itxi baño; "el genio y la figura, hasta la sevultura" esaerz zafian irakuften dok-eta.—Ibon.

ZAMUDIO

EŕMUA'RA.—Igaziko igandian efi aretan ixan ziran jayetara, abeftzale asko juan giñian efi onetatik, euzko-ikufiña geugaz gebala, eta Ermuan sartu zanik dotoriena eruan-be.

Bazkalduta gero akefa ofduan "Txindufi" jaunak yaufi ebazan olefki politak eta bai Laborda jaunak, euzko-abesti politak abestu bere.

Afatsaldean izlarijak bijotzak samuftu euskuzan eta len baño bere abeftzale zintzuaguak ixateko bidian imiñi. Onen ostian egin eban aufesku edef bat efi onetako Basaratz'taf Saturnin mutiko gastiak oso edefto egin-be. Geu Ermua'ra juan giñian geure ikufiñagaz, an ixan ziran jai-abefkoi andijetara, ango Batzoki eta E. A.-B.'ren ikufin onespena dala-ta... baña ¿noiz eurok eukiko ete dabe Zamudio'ra etofi biafa? Tamalez, apurtxu baten ez dot uste, baña emengo abeftzaliak lo eztagoz-ta, zeozef egingo dabe aldi luserik igaro-barik.

ARAUDIJA. — Gaf andija dago emen, Euzko-Araudia'ren aldez lan egifeko. Jakiña-da Araudija eztauskubela emoten euzkaldunak biaf ginduken azkatasun gustijak, ezta ufik bere, baña emoten daben apuf, ori aftu, ta nekatu barik lan egin biaf dogu gustija loftu-afteraño.

TXALOGAŕIJA.—Efi onetan Josu Gorputzaren egunian asi-ta, gabeko amaikatan izten ditubez ardau-etxe gustijak. Oso edefto egiña-da orixe, eta amaiketan - barik amafetan ba 'litz, oraindiño, obeto.

Ofdu ofetatik gora afdau-etxietan dagozanak eztagoz gauza onik egiten. Auxe-da efi bakez eukifeko bide zuzena.

Artu begiez nere txaluak endore jaunak edo... lan edef ofi egin daben gustijak.

TXIMISTA BAT.

DONOSTIA

EUSKEL-IZENA.—"Miren Itziar" Leizaola'taf Efikarta abeftzale zintzoaren alabatxoari. Zorionak.

OŕI BELTZA. — Olano'taf Efamunda Donostia'n zafenetako abeftzale ona ilda. Bere sendiari nere atsekabe lepala. (G. B.).

"AMAGOYA" TA "GOGOŕA,,'RI.—Urkiola-aldian ezkondu zeratela jakin diat. Berandutxo bada ere zorionak.

Oraño ere "Gogofa", gofora egin dek.

Babufunak egiten duen saneufia jakiñik ¿ezkondu? ¡Gogofa aiz, "Gogofa"!

AGURTU.—E.-Etxea'n agurtu degu, Altuna'taf Joseba, Bilbao'ko abeftzale sutsu ta euzkel-irakasle azkafa.

AZPEITIA'RA.—Goiz ta afatsalde, asko gera Azpeitia'ko jayetara juateko, asmotan geran donostiaf abeftzaleak.

Gurekin batera, ezpatadantzari-talde befi bat, ta bai Ernandorena itzlari sutsua ere.

Izlari askotxo dirala ta itzaldi atera geitxo luzatu ez dedin, ordu laurden bateko itzaldia, E.-Gateak lendakarien itzaldia.

Garbi erakutsi dezagun, Euzkadi bakafa dala gure abefia, ta abefi bakafa degun ezkero, bai ikufiña ere, bakafa, Sabin irakasle maitiak erakutsi ta kementsu eutsitako bigurutze dun ikufiñe.

Lateřian gaiñ ganetik Abefia, ¡Zutik bet! euzkotafak Sabin'en ikufiña! ¡Euzkotafak lenago gipuzkoafak baño.

卐 卐 卐

Euzkotaf abeftzale pelotariak Irlanda'ra:

Datofen astean dijuaz. Euzkadi'ko izena daramate, ez España'rena, orain arte gertatu izan dan bezela. Euzkadi B. B.'en ordezkariak dira.

Azkatasun asmoetan, anayak geraia-ta Euzkadi euzkotafen Abefia dala adierazteko. Asmo biozdunaz agertuko dira. Euzko ikufiña buru dutela, beste Lateři guzien ikufiñ artean, guria zabalik Irlanda ikusiko da.

ATAŕENE.

¡Cómo la estamos gozando!

Seguimos ya más de un año
"amochaos" y agradecidos,
lo mismo republicanos
que los "cavernicolinos".
Y solución no se ve
ni aquí ni en España entera,
ni aun comprándose un "Omega"
de Arturo Navarro Allué.
Bidebarrieta, 13. (Esquina a Lotería).

HOTEL DOMINICA
Urbieta, 12 y 14. — Tlf., 10.363.
Restaurant en el primer piso.
Se habla euzkera. SAN SEBASTIAN.

Academia de Corte
Si queréis aprender el corte pronto y bien, en la Academia de María Luisa de Uriarte. Cursos especiales para modistas, de siete a diez
SOMBRERERIA. 12. CUARTO.